

# ALKOHOLAREN PUBLIZITATEA, SALMENTA ETA KONTSUMOA ARAUTZEKO ORDENANTZA

## Zioen adierazpena

Espainiako Konstituzioaren 43.2 artikulua, Europako Batasuneko 2002-2004 epealdirako drogen arloko Ekintza Plana eta 18/1998 Legea, drogamenpeketasunen arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzkoa, kontuan hartuta, edari alkoholadunen kontsumoari eta batez ere, adin txikikoek egiten dutenari, aurre hartzea da ordenantza honen xedea.

Ordenantza honek alkoholaren kontsumoaren arloan indarrean dagoen araudia jaso eta horri dagokion udal-eskumena garatu nahi du, herritarren artean kontsumoa oso altua delako eta are kezagarriagoa dena kontsumitzen hasteko adina gero eta baxuagoa, 13,6 urtekoa batez beste azkeneko ikerketen arabera.

Alkoholaren kontsumoak osasun publikoan arazo larria sortu du, biztanleriaren gaixotze eta heriotza-tasaren faktore garrantzitsuenetako bat bilakatu baita.

Hori dela eta, indarrean dagoen Toki-administrazioaren Araubideak osasun publikoa babesteko udalei emandako eskumenak baliatuz xedatu da Ordenantza hau. Ordenantza honek alkoholaren kontsumoa, salmenta, hornikuntza, publizitatea eta sustapena debekatzeko, mugatzeko eta kontrolatzeko neurriak ezartzen ditu, haur eta gazteei zuzendutako aurrezaintza politikari lehentasuna emanez. Hala ere, ez da ahaztu behar droga hau oker kontsumitzeak sortarazten dituen ondorioei buruzko sentsibilizazioak bakarrik eragingo duela gizartearen jarrera eta jokabide aldaketa.

Sektoreko, estatuko eta autonomia-erkidegoko legeetan, osasun-arloan, kontsumitzailearen babes eta defentsan, eta droga-mendetasunen arloko publizitate, aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzearen inguruan xedatutakoa ikusirik eta testu konstituzionalaren 43, 48 eta 51. artikuluek emandako habilitazioan oinarrituta aplikatuko da hau guztia, agindu hauek arrazoitzen baitituzte botere publikoak eta administrazio-jarduna legitimatu.

## Xedapen orokorrak

### **1. artikulua**

Ordenantza hau ondoko legeek Udalari emandako eskumenen indarrez egin da: apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak; apirilaren 14ko 3/1986 Lege Organikoak, osasun publikoari buruzko neurri berezienak; uztailaren 19ko Uztailaren 19ko 26/1984 Legeak, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteko orokorrak; otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoak, Herritarren Segurtasunaren Babesari buruzkoak (apirilaren 21eko 10/1999 Legeak aldatutakoak); EAEko ekainaren 25eko 18/1998 Legeak, drogamenpekotasunen arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzkoak; eta azaroaren 10eko 4/1995 Legeak, jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak arautzekoak.

### **2. artikulua**

Ordenantza honek Zarauzko udal mugapean alkoholaren kontsumo desegokiari aurre hartzeko neurriak ezartzea du helburu, horretarako dauden udal-eskumenak baliatuz.

### **3. artikulua**

Ordenantza honetan jasotako xedapenei kalterik egin gabe, Eusko Legebiltzarraren ekainaren 25eko 18/1998 Legea, drogamenpekotasunen arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzkoa, 4/1995 Legea, ikuskizun publiko eta jolas jarduerak arautzekoa, eta hau garatzen duen araudia aplikatuko dira.

## **I KAPITULUA**

### **Aurrezaintzari buruzko neurriak**

#### **4. artikulua.- Informazioa**

Udalak alkoholaren kontsumoak sortutako mendekotasunen prebentzioari eta asistentziari buruz, ahalik eta aholku eta orientabide zabalenak eskainiko ditu.

Kontsumoari lotuta dauden ohiturak eta jarrerak aldarazteko asmoz, gehiegizko kontsumoaren inguruan informazio eta heziketa ekintzak sustatuko ditu.

Haurrak eta gazteak babestuko ditu bereziki; horretarako talde horiei zuzendutako ekintza bereziak bultzatuko ditu, aipatutako aurrezaintzako helburu horiek lortu nahian.

#### **5. artikulua.- Hezkuntza**

Udalak haurren eta gazteen artean osasun-heziketa sustatuko du, hezkuntzako, osasuneko eta gizarte zerbitzuetako langileen laguntzaz eta herriko ikastetxeekin toki-administrazioekin elkarlanean eta beste erakunde motakoekin.

Gazte elkarteak bultzatuko ditu eta lanbide heziketa, aisialdia, kultura edota kirola garatzeko ekintzetan euren parte hartzea indartuko du.

#### **6. artikulua.- Herritarren lankidetzak**

Programetan eta ekintzetan herritarren partaidetza sustatuko da. Hori lortze aldera, xede horrekin legez eraturako elkarteei informazioa eta prestakuntza eskainiko zaizkie.

## **II. KAPITULUA**

### **Interbentzio-neurriak**

#### **7. artikulua.- Baimenak**

Kontsumo nahiz salmenta-lekuetan edari alkoholodunak saltzeko beharrezkoa da instalazio edo irekitze-baimena izatea. Baimena lortu arte ezin zaio jarduera horri ekin.

Instalazio edo irekitze-baimenek III. kapituluan xedatutako debeku eta mugapenak bete beharko dituzte.

## **8. artikulua.- Ikuskatze-jardunak**

Udaltzaingoak eta Udal-ikuskatzailetza eta hala behar balitz horretarako izendatutako ordezkariak, lokalak ikertzeko, ikuskatzeko, aztertzeko eta kontrolatzeko ahalmena izango dute, Ordenantza honek araututako debekuak eta mugapenak betearazteko.

Egintzaren bat arau-haustetzat jotzen dutenean, dagokion salaketa-buletina edo akta egingo dute. Dokumentu horretan, zigor-prozedurarako oinarri izango diren egoera pertsonalak, datuak eta egintzak jaso beharko dituzte.

Establezimenduen jabeak, kudeatzaileak edo arduradunek, edozein momentutan, lokaletarako sarrera erraztu eta ikuskatze-lanak egiteko beharrezkoa den laguntza eman beharko diete ikuskatu eta kontrolatzeko izendatutako pertsonari. Arau-hauste zigorgarritzat hartuko da aurkako jarrera aktiboa edo omisiozkoa, baita aipatutako lana oztopatze hutsa ere.

## **III. KAPITULUA**

### **Mugapenak eta debekuak**

## **9. artikulua.- Edari alkoholodunen sustatu eta iragartzea**

1.- Debekatuta dago edari alkoholodunen kanpoaldeko publizitatea. Kanpoko iragarkitzat hartuko dira erabilera orokorrekoak diren gunetan dabilzan edo gunen horietan nahiz leku irekietan dauden pertsonen arreta, irudiaren edo soinuaren bidez erakartzeko gai diren iragarkiak.

2.- Debekatuta dago adin txikikoen bizilekura bidalitako mezuen bidez edari alkoholodunen sustapena egitea, 18 urtetik gorako pertsonen izenean bidaltzen badira izan ezik.

3.- Debekatuta dago honako leku publikoetan edari alkoholodunen publizitatea egitea:

- a) Batez ere 18 urtetik beherako pertsonak erabiltzen dituzten lokaletan.
- b) Kirol-zentroetan, osasun-zentroetan, ikastetxeetan eta horietarako sarbideetan.

- c) Zinema eta ikuskizun-aretoetan, 18 urtetik gorako pertsonentzat diren saioetan izan ezik.
- d) Garraio publikoen barruko aldean.

4.- Izena, erabilitako hitzak, grafismoa, aurkezteko modua edo beste arrazoiren bat dela bide, zeharka edo erdi ezkutuan edari alkoholdunen publizitatea egiten duten gauza edo produktuen publizitatea ere galarazita egongo da.

#### **10. artikulua.- Edari alkoholdunen salmenta eta hornidura**

1.- Debekatuta dago ikuskizun publikoetarako eta jolas jardueretarako lokal eta instalakuntzetan 18 urtetik beherakoei edari alkoholdunak saltzea eta eskueran jartzea.

2.- Debekatuta dago edari alkoholdunak saltzeko baimena duten establezimendu komertzialetan, supermerkatu, ultramarino, txikizkako janari-denda eta horrelakoetan, 18 urtetik beherakoei edari alkoholdunak saltzea eta eskueran jartzea.

3.- Debekatuta dago makina automatikoen bidez edari alkoholdunak saldu edo eskueran jartzea, baldin eta makina horiek establezimendu itxietan eta pertsona jakin batek ikusi eta goian aipatutako debekuak betetzen direla ziurtatzeko moduan ez baldin badaude. Alkohola saltzeko makina automatikoen aurreko aldean Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan ohar bat jarri beharko da. Oharrak behin-betikoa eta 20 zentimetro baino handiagoa izan beharko du eta alkohola osasunerako kaltegarria dela azaldu beharko du.

4.- Debekatuta dago honako lekuetan edari alkoholdunak saldu eta eskueran jartzea:

- 18 urte arteko ikasleentzako ikastetxeetan.
- Batez ere 18 urtez beherakoek erabiltzen dituzten lokal eta zentroetan.
- Bide publikoan, horretarako berariazko baimenik ezean.

5.- Debekatuta dago honako lekuetan 20 gradu baino gehiagoko edari alkoholdunak saltzea eta eskueran jartzea:

- 18 urtetik gorako ikasleentzako irakaskuntza-zentroetan.
- Administrazio publikoen egoitzetan.

- Kirol-instalazio eta osasun-zentroetako gune, taberna eta kafetegietan; dena den, gune horiek bereiztuta, mugatuta eta seinaleztatuta egon beharko dute.

6.- Salmenta lekuetan debekua gogorarazten duten kartelak jarriko dira Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan.

### **11. artikulua.- Sarrera eta egonaldia**

Debekatuta dago 16 urtetik beherakoak edari alkoholdunak saltzen dituzten establezimendu publiko itxietan, tabernetan, dantzalekuetan, diskoteketan, ikuskizun edo jolas zentroetan, eta orokorrean, alkohola saldu edo kontsumitzen den establezimendu publikoetan sartzea eta egotea, gurasoekin edo euren ardura duten pertsonekin ez baldin badaude.

Leku horietan Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan "16 urtetik beherakoek sarrera debekatuta dute" dioten kartelak jarri beharko dira, bai kanpoko leku agerietan, sarreretan edo txartel-leihatiletan adibidez, baita barruan ere.

Horretaz gain, establezimenduen jabeek baimendutako edukiera bermatu beharko dute.

### **12. artikulua.- Edari alkoholdunen kontsumoa**

1.- Debekatuta dago 18 urtetik beherakoek edari alkoholdunak kontsumitzea.

2.- 18 urtetik beherakoek edari alkoholdunak saltzeko makina-automatikoak erabiltzea ere debekatuta dago, establezimenduko titularren ardurapean.

### **13. artikulua.- Adina egiaztatzea**

Aurreko artikuluetan xedatutakoa betearazteko, establezimenduen jabeek, kudeatzaileek, arduradunek edota langileek, zalantzak baldin badituzte, adina egiaztatzeko dokumentuak eskatzeko baimena izango dute.

## IV KAPITULUA

### Eskumenak

#### **14. Artikulua.- Administrazioen arteko koordinazioa**

Arloko legeriak xedatutako ekintzak koordinatzea eta gizartearen parte hartzea bultzatuko ditu Udalak.

## V KAPITULUA

### Arau-haustek eta zigorrak

#### **15. artikulua.- Arau-haustek**

1. Ordenantza honetan jasota dauden debekuak, mugapenak edota betebeharrak ez betetzea arau-haustetzat hartuko da.
2. Aplikatu beharreko legeriarekin bat etorriz, arau-haustek arinak, larriak edo oso larriak izango dira.
  - a) Arau-hauste arina izango da 9.2, , 11 eta 12. artikuluetan xedatutako mugapen eta debekuak ez betetzea. Ordenantza honetan arau-hauste larri edo oso larritzat hartzen ez diren beste arau-haustek ere arinak izango dira.
  - b) Arau-hauste larria izango da 8. artikuluko 3. atalean xedatutako betebeharra eta 9.1 eta 10.1, 10.2 artikuluetan jasotako mugapen eta debekuak ez betetzea. Arau-hauste arinak berriro egitea ere arau-hauste larria izango da.
  - c) Arau-hauste oso larria izango da lanean diharduten ikuskatze-zerbitzuei behin eta berriro sarrera galaraztea edo establezimendu publiko eta jolas jarduerak ikuskatzea larriki eragotzi edo oztopatzea. Arau-hauste larriak berriro egitea ere arau-hauste oso larria izango da.

## **16. artikulua.- Zigorrak**

1. Ordenantza honetan jasota dauden arau-hausteeak, hala badagokie, honako zigorrek izango dituzte: ohartarazpena, isuna, jarduera aldi baterako etetea edo establezimendu, lokal edo enpresa aldi baterako ixtea.
2. Arau-hauste oso larriek honako zigorra jasoko dute, txandaka edo metatuta:
  - a) Isuna
  - b) Lokala ixtea egun bat eta hiru urte bitarte.
3. Arau-hauste larriek honako zigorra jasoko dute, txandaka edo metatuta :
  - a) Isuna
  - b) Lokala ixtea urte betean
4. Arau-hauste arinek isuna edo ohartarazpen soila jasoko dute, baldin eta zabarkeria hutsez eginak izan badira eta osasunari kalterik egin ez badiote.

## **17. artikulua.- Zigorrek zehaztea**

Zigorrek zehaztu eta ezartzeko garaian arau-hauslearen erruduntasuna eta arau-hauste administratiboa gertatu zeneko gainerako egoerak hartuko dira kontuan, honakoak bereziki:

- a) Arau-haustearen gizarte-eragina.
- b) Osasunarentzako arriskua.
- c) Asmo txarra, berrerortzea edo errepikatzea.
- d) Legez kanpo lortutako onura.
- e) Zigor-espeditatea amaitu aurretik galdagarri diren neurri zuzentzaileak hartzea.
- f) Arau-haustea leporatzeko garaian aringarri edo astungarri izan daitekeen beste edozein.

## **18. artikulua- Erantzuleak.**

1. Ordenantza honetan xedatutako ekintza eta omisioak dolo, erru edo zabarkeria hutsez burutu dituzten pertsona fisiko eta juridikoak izango dira erantzule, honakoak zehazki:



- a) Lokalen, instalakuntzen edo hauei dagozkien lizentzien titularrak.
  - b) Aurrekoen mende dagoen pertsonala eta beharrezko laguntzaileak.
2. b) atalean aipatutako pertsonak egindako arau-hausteen erantzukizuna lokalen edo hauei dagozkien lizentzien titularrek izango dute, baldin eta arau-hausteari aurre egiteko betebeharra bete ez badute, bidezko diren ordain-ekintzei kalterik egin gabe.

### **19. artikulua.- Eskumena duten organoak**

1. Eusko Jaurlaritzako organoei euren eskumen-eremuan dagokien zigor-eskumenari kalterik egin gabe, Ordenantza honetan xedatutako arau-haustek Udalak zigortuko ditu.
2. Indarrean dagoen legeriak emandako ahalmenen arabera, arau-hauste arin eta larriei dagozkien espedienteak ireki eta ebazteko organo eskuduna Alkatetza-lehendakaritza izango da.
3. Espedientea izapidetzean, izendatutako instrukzio-egileak zigor-eskumena berak ordezkaturako administrazioari ez dagokiola ikusiko balu, eskumena duen administrazioa igorriko luke eta honek utzitako prozedura-fasean jarraituko luke izapidea.

### **20. artikulua.- Preskripzioa**

1. Arau-hauste arinek sei hilabetera preskribituko dute eta larriek eta oso larriek hala dagokien legeek xedatutakoaren arabera.
2. Preskripzio-epea arau-haustea egindako egunetik hasiko da kontatzen.

### **21. artikulua.- Jardunbidea**

Ordenantza honetan xedatutakoaren arabera izapidetu eta ebatzitako zigor-espedienteek azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, jasotako printzipioak errespetatuko dituzte; eta otsailaren 2ko 2/1998 Legeak, Euskal Autonomia

Erkidegoko herri administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoak, ezarritako izapideak beteko dituzte.

## **22. artikulua.- Behin-behineko neurriak**

Zigor-espedientea irekitzeko eskumena duen organoak, hala arrazoituz gero, edozein momentutan har ditzake azken ebazpenaren eraginkortasuna bermatzeko edo arau-haustearen ondorioak ez iraunarazteko beharrezko eta egokiak diren zuhurtziako neurriak.

**EGINBIDEA.-** Jasoarazteko Ordenantza hau, hasierako izaeraz, 2004ko ekainaren 30ean egindako osoko bilkuran onestu zuela Udalbatzarrak.

Zarautzen, 2004ko uztailaren 1ean  
Idazkaria

**EGINBIDEA.-** Jasoarazteko, jendaurrean egon zen bitartean inolako alegaziorik aurkeztu ez zenez, Ordenantza behin-betiko onestua geratu zela eta Probintziako Aldizkari Ofizialean 2004ko abuztuaren 30ean (zk. 166) argitaratu zela.

Zarautzen, 2004ko abuztuaren 31n  
Idazkaria